

ERROREA

Jone Inge Urzelai

Saiakera eta errorearen teknika oso hedatua da ikerketa bide bezala. Errealitatearen simulazio “merke” batzuen azterketak, ildo estrategikoa finkatzeko edo zuzentzeko aukera eskaintzen du.

Errorea, Estatu-aurreko giza harremanetan berezkoa zen, gaurkoetan gezurra den bezalaxe. Errorea, istripua salbu, “nork-berari” eragindakoa biolentzia da, borondatezkoa, gezurra berriz, “batek-besteari” eragindakoa.

Bada erroreakin harreman oso estua duen giza talde bat, skaterrak. Talde honen bereizitasunak Rodney Mullenen eskutik ezagutu ditut, etengabe erori eta jaikitzearen ondorioz, izaera berritzailea berezkoa dutela aitortzen du, “what we do shapes us”:

“I do believe skateboarding is unusually innovative because of the way we embrace failure as a community”. “Innovation is piercing the barrier of disbelief”. “Most creations are done never square centered, like down the line, you always see them in peripheral vision”.

Politika ez da skateboarding-a, lurrera eroriek ez dute berriz altxatzeko aukerarik izan(go). Akats estrategikoak “garesti” ordaintzen dira politikan. Garestien estrategia gabeko “burokrazia” bateri gidaritza politikoa aitortzea; pozoina irentsi dugunaren seinale. Gure instituzio eraitsiak estrategiarekin soilik berreraikiko ditugu. Estrategiak gorpuzten du klase politikoa.

Jokoz kanpo gelditzeko beldurrez, Herrian sinesmena galdurik, “euskal burokraziak” faxismoaren estrategian parte hartzea erabaki zuen. Euskal Herria preso eta infraestragian nahi dute, Madril eta Paristik datozkien sosak medio, “what they do shapes them”:

“En el terreno específico de la política que haya contendientes significa que la victoria no está garantizada de antemano por ningún oráculo infalible, ni por ninguna ley divina, natural o positiva. Si no fuera así no estaríamos ante una relación de naturaleza política, sino ante un conjunto de desalmados criminales que disfrutan con la práctica del mal en un extremo de la misma y, en el otro, ante un conjunto de locos o suicidas voluntarios a los que la vida les pesa ya demasiado y prefieren morir. Un hecho que, de darse, no pertenece al conjunto referencial que nos ocupa.”

“Pakean, askatasunean, demokrazian eta inungo biolentziarik gabe” bizi garenaren leloarekin narkotizatu nahi gaituzte, heriotz atarian den gaixoari mina arindu nahi baliote bezala. Horrela ote?

Euskal Herria, 2019ko azaroaren 15a.